



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA PROZESUA

KONTU-HARTZAILETZKO ADMINISTRARIA

Lehenengo ariketa

2025-07-07

1.- UDALERRIAK ESKUMEN PROPIOAK IZANGO DITU BETI, ESTATUKO ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO LEGERIAREN ARABERA, HONAKO GAI HAUETAN:

- a) Hondakin-uren hustuketa eta tratamendua
- b) Kalez kaleko salmenta
- c) a) eta b) erantzunak ez dira zuzenak
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira

2.- DAGOKION ARAUAK BESTE EPE BAT EZARTZEN DUENEAN IZAN EZIK, INTERESDUNEK BETE BEHARREKO IZAPIDEAK EPE HAUETAN EGIN BEHARKO DIRA:

- a) Hilabeteko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita
- b) Hogei eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita
- c) Hamabost eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita
- d) Hamar eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita

3.- NOIZ HASIKO DIRA OFIZIOZ PROZEDURAK?

- a) Salaketa baten ondorioz
- b) Organo eskudunaren ekimenez
- c) Norberaren ekimenez
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

4.- ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA INFORMAZIO PUBLIKOARI DAGOKIONEZ:

- a) Izapide horretan ez agertzeak interesdunei eragotzi ahal izango die prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka dagozkien errekurtsioak aurkeztea.
- b) Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.

- c) Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen.
- d) Izapide honetan alegazioak edo oharra aurkeztu dituztenek Administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute; erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.

5.- ZEIN DA INDARREAN DAGOEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEA?

- a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legea
- b) Urriaren 4ko 35/2005 Legea
- c) Urriaren 1eko 39/2015 Legea
- d) Irailaren 8ko 1/2015 Legea

6.- DATU HAUETATIK ZEIN EZ DA BEHARREZKOAGERTZEA PROZEDURA INTERESDUNEN ESKATURIK HASTEN DENEAN?

- a) Telefono zenbakia
- b) Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza, argi eta garbi adierazirik
- c) Administrazioko zer organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion eskaera eta zein den haren identifikazio-kodea.
- d) Eskatzailearen sinadura, edo benetan bere borondatea adierazi duela erakusteko edozein eratako egiaztapena

7.- INTERESDUNEN TOKI HAUETAN AURKEZTU AHAL IZANGO DITUZTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ORGANOETARA ZUZENTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK:

- a) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan
- b) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan
- c) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

8.- ESPRESUKI KONTRAKOA XEDATZEN EZ BADA, TXOSTENAK HONELAKOAK IZANGO DIRA:

- a) Lotesleak
- b) Lotesleak eta aukerakoak
- c) Aukerakoak eta ez-lotesleak
- d) Aukerakoak inoiz ez

9.- NON ETA XEDAPENEN BATEK EDO PROZEDURAREN GAINERAKO EPEAK BETETZEAK EZ DUEN AHALBIDETZEN EDO ESKATZEN EPEA LUZEAGOA EDO LABURRAGOA IZATEA, TXOSTENAK EPE HONETAN EGINGO DIRA:

- a) Hamar eguneko epean
- b) Hamabost eguneko epean
- c) Hogeia eguneko epean
- d) Hilabeteko epean

10.- ZEIN DA PROZEDURA AMAITZEKO MODU ARRUNTA?

- a) Amaiera itundua
- b) Administrazioaren isiltasuna
- c) Ebazpena
- d) Eskeraren oinarri den eskubideari uko egitea

11.- TOKI-ORDENANTZAK ONARTZEKO PROZEDURA HAU BETE BEHAR DA:

a) Alkateak hasierako onarpena ematea, gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

b) Osoko Bilkurak hasierako onarpena ematea, gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan

aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

c) Osoko Bilkurak hasierako onarpena ematea, gutxienez 20 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

d) Aurreko erantzun guztiak dira okerrak.

12.- BANDOAK EMATEKO ESKUMENA HONAKO HONI DAGOKIO:

- a) Osoko Bilkurari
- b) Alkateari
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira
- d) Aurreko guztiak dira okerrak

13.- UDAL-ANTOLAKUNTZA ARAU HAUEN ARABERAKOA DA:

- a) Udal guztietan daude alkatea, alkateordeak eta Osoko Bilkura
- b) Udal guztietan daude alkatea, Gobernu Batzarra eta Osoko Bilkura
- c) Udal guztietan daude alkatea eta Osoko Bilkura
- d) Udal guztietan daude alkatea eta Gobernu Batzarra

14.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN LEGEAREN 41. ARTIKULUAK EZARTZEN DUENAREN ARABERA, JAKINARAZPENAK, AHAL DELA, HONELA EGINGO DIRA:

- a) Posta bidez
- b) Telefono bidez
- c) Bitarteko elektronikoz

- d) Administrazioarentzat azkarrena eta merkeena den bidea erabiliz

15.- EGINTZA BATEK ATZERAERAGINA IZATEKO, BEHARREZKOA DA:

- a) Partikularren eskubideak murriztea
- b) Partikularren ahalmenak baliatzea murriztea
- c) Betebeharrak edo obligazioak inposatzea
- d) Ez kaltetzea beste pertsona batzuen eskubideak

16.- EGINTZA ADMINISTRATIBO BATEN JAKINARAZPENA(K):

- a) Egintza orokorren kasuan, haren eraginkortasuna bertan behera uzten du hura gauzatu arte.
- b) Ez du eragozten egintza hori betearaztea.
- c) Haren eraginkortasuna bertan behera uzten du, behin egin ondoren.
- d) Mota guztietako egintzekin egin behar da

17.- EMAKUME BATI HAURDUNALDIARENGATIK EDO AMATASUNARENGATIK EMANDAKO TRATU KALTEGARRI ORO:

- a) Sexu-jazarpena da
- b) Sexuan oinarritutako jazarpena da
- c) Zuzenean sexuan oinarritutako bereizkeria da
- d) Zeharka sexuan oinarritutako bereizkeria da

18.- ADMINISTRAZIO-BIDEA AGORTZEN EZ DUTEN EGINTZEN AURKA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA:

- a) Ez-ohikoa da
- b) Arau orokorra da
- c) Berezia da
- d) Ez da existitzen

19.- GORA JOTZEKO ERREKURTSOA:

- a) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoaren aurrean aurkeztuko da
- b) Auzien Epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztuko da
- c) Egintza eman zuen organoaren aurrean aurkeztuko da
- d) Biak ala biak, bai egintza eman zuen organoaren aurrean bai erabakia hartu behar duen hierarkian goragokoaren aurrean aurkeztuko da

20.- BERRIKUSPEN-ERREKURTSOA:

- a) Unitarioa da
- b) Arrunta da
- c) Berezia da
- d) Ez-ohikoa da

21.- HIRI-AGLOMERAZIO HANDIETAKO UDALERRIEK OSATUTAKO TOKI-ERAKUNDE GISA DEFINITZEN DIRA, BIZTANLE-GUNEEN ARTEAN EKONOMIA- ETA GIZARTE-LOTURAK DAUDENEAN, ETA, ONDORIOZ, BEHARREZKOA DENEAN ZERBITZU ETA OBRA JAKIN BATZUK BATERA PLANIFIKATZEA ETA KOORDINATZEA:

- a) Metropolialdeak
- b) Eskualdeak
- c) Mankomunitateak
- d) Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko entitateak

22.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 137. ARTIKULUAREN ARABERA:

- a) Estatua lurraldez Udalerrietan, Probintzietan eta sortuko diren Autonomia-Erkidegoetan eratzen da.
- b) Estatua lurraldez Udalerrietan, Probintzietan eta Irletan eratzen da
- c) Estatua lurraldez Udalerrietan, Probintzietan eta Eskualdeetan eratzen da
- d) Estatua lurraldez Udalerrietan, Probintzietan eta Kontzejuetan eratzen da

23.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK OBJEKTIBOTASUNEZ ZERBITZATZEN DITU INTERES OROKORRAK ETA PRINTZIPIO HAUEK BALIATUZ JARDUTEN DU:

- a) Hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez
- b) Eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez
- c) Eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa eta deskontzentrazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez
- d) Eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez

24.- ZEIN DA ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETAREN OINARRIZKO ERAKUNDEA ETA HERRITARREK GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO BEREHALAKO BIDEA, BAKOITZAREN KOLEKTIBITATEAREN BEREZKO INTERESAK AUTONOMIAZ INSTITUZIONALIZATU ETA KUDEATZEN DITUENA?

- a) Irla
- b) Probintzia
- c) Udalerria
- d) Eskualdea

25.- TOKI-EREMUAN, ZEIN DA GAI BATI BURUZKO HERRI-KONTSULTA EGIN DEZAKEEN ORGANO BAKARRA?

- a) Probintziako Diputazioko presidentea
- b) Alkatea
- c) Nazioaren gobernua
- d) Toki-entitate bakoitzeko Osoko Bilkura

26.- ZEIN DOKUMENTU EZ DA TOKIKO ENTITATE BATEN AURREKONTUAREN PARTE?

- a) Gastuen egoera eta diru-sarreraren egoera
- b) Inbertsioen eranskina
- c) Behin-behineko balantzea
- d) Zorpetze-eranskina

27.- GASTU-EGOEREN EGITURA EKONOMIKOAK EZ DITU BARNE HARTZEN:

- a) Eragiketa arruntetarako kredituak
- b) Kapital eragiketetarako kredituak
- c) Dirulaguntzetarako kredituak
- d) Finantza-eragiketetarako kredituak

28.- DIRU-SARREREN EGOERAREN EGITURA EKONOMIKOAK DIRU-SARREREN AURREIKUSPENEAN EZ DITU BARNE HARTZEN:

- a) Zuzeneko sarrerak
- b) Ondare-sarrerak
- c) Aurrekontuz kanpoko sarrerak
- d) Tasak

29.- DIRU-SARREREN KONTABILIZAZIO ETA KONTROLA, GUTXIENEZ, HORRELA EGINGO DA:

- a) Programa mailan
- b) Artikulu mailan
- c) Kontzeptu mailan
- d) Azpiprograma mailan

30.- ZEINEK PRESTATUKO DU TOKI-ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIOAREN AURREKONTUA?

- a) Osoko Bilkurak
- b) Kontu-hartzaileak
- c) Presidenteak

d) Ogasuneko zinegotziak

31.- AURREKONTU OROKORRA KORPORAZIOKO OSOKO BILKURARI BIDALIKO ZAIO, ONAR, ZUZEN EDO ITZUL DEZAN, DATA HONEN AURRETIK:

- a) Abenduak 31
- b) Irailak 30
- c) Urriak 15
- d) Urriak 31

32.- AURREKONTU OROKORRARI HASIERAKO ONESPENA EMAN ONDOREN, ETA GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN IRAGARKIA JARRI ETA GERO, JENDAURREAN JARTZEKO EPEA HAUXE IZANGO DA:

- a) 15 egun baliodun
- b) 30 egun baliodun
- c) 15 egun natural
- d) 30 egun natural

33.- AURREKONTUA INDARREAN SARTUKO DA, DAGOKION EKITALDIAN,

- a) jendaurrean egoteko epea alegaziorik gabe igaro ondoren
- b) alegaziorik ez dela egon adierazten duen iragarkia argitaratu ondoren
- c) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean atalka laburbilduta argitaratu ondoren
- d) Udaleko iragarki-taulan argitaratu ondoren.

34.- AURREKONTUAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK BAKARRIK AURKEZTU AHAL IZANGO DIRA:

- a) Aurrekontua egiteko eta onartzeko Foru Arauak ezarritako tramiteak ez betetzeagatik.
- b) Gastuak nahikoa ez izateagatik aurrekontuko sarrerei aurre egiteko
- c) Dirulaguntza bat emateko eskaerari erantzuteko behar den kreditua ez aurreikusteagatik
- d) Aurreko guztiak dira zuzenak

35.- KREDITU GLOBALARI DAGOKIONEZ, ZEIN BAIEZTAPEN DA ZUZENA?

- a) Aurrekontuaren ordainketa-kredituen zenbateko osoaren % 5 gaingitu ahal izango du
- b) Ezingo da zuzenean haren kontrako gasturik baimendu.
- c) Kreditu globalaren xedapenak Osoko Bilkurak baimenduko ditu.
- d) Kreditu globala ezingo da inondik ere gehitu

36.- ZEIN ALDAKETAK EZ DIO ERAGITEN UKITURIKO ORRIETAKO GUZTIZKO ZENBATEKOARI?

- a) Kreditu-gaikuntzari buruzkoak
- b) Kreditu-transferentziei buruzkoak
- c) Kreditu-txertaketari buruzkoak
- d) Baliogabetzearen ziozko baxei buruzkoak.

37.- EDOZEIN MOTATAKO KREDITU-TRANSFERENTZIA DAGO ONDOKO MUGA HAUETARA LOTUTA:

- a) Ez dituzte handituko beste transferentzia batzuen ondorioz gutxituak diren kredituak.
- b) Zabalgarritzat hartzen diren kredituak gutxiagotu ahal izango dituzte, kalifikazio hori galduz, beraz, geroago ezin dira gehitu.
- c) Aurreko mugak ez dagozkie pertsonalaren kredituei buruzko kreditu-transferentziei.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

38.- KREDITU BERRIAK GAITU EDO DAUDENAK ZABALDU AHAL DITUZTEN SARRERATZAT HARTU AHAL IZATEKO, ITURRIAK HONAKO ERAGIKETA HAUEK IZANGO DIRA:

- a) Ondare-ondasunen besterentzeak
- b) Bidegabe egin eta ekitaldi arruntei dagozkien ordainketen itzulkinak.
- c) Norbanakoek edo pertsona juridikoek etorkizunean egingo dituzten ekarpenak, beren izaeragatik dagozkien xede edo helburuen barruan dauden gastuak finantzatzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

39.- AURREKONTU-KREDITUEN EGOERA HAUETAKO BAT IZAN DAITEKE:

- a) Kreditu erabilgarriak
- b) Kreditu ez-erabilgarriak
- c) Erabili gabeko kreditu atxikiak
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

40.- ZEIN EZ DA GASTUEN AURREKONTUA KUDEATZEKO FASE BAT?

- a) Gastua egiteko baimena.
- b) Ordainketaren agindua.
- c) Ordainketa
- d) Kredituaren atxikipena

41.- NORK AITORTUKO DITU LEGEZ ESKURATUTAKO GASTUEN KONPROMISOETATIK SORTZEN DIREN BETEBEHARRAK?

- a) Presidenteak edo Osoko Bilkurak, biek ala biek
- b) Osoko Bilkurak, eskuordetu ondoren
- c) Presidenteari, eskuordetu ondoren
- d) Ogasuneko zinegotziari.

42.- GASTUEN AURREKONTUEN KARGURA FROGATU BEHARREKO ORDAINKETA AGINDUEN LUZAPENEAN ETA AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIETAN ARAUTU ONDOREN

- a) Hartzaileek jasotako kopuruak nola aplikatu dituzten frogatu beharko dute gehienez sei hilabete igaro aurretik.
- b) Aurrekontuetako kontzeptu berdinegatik, frogatu gabeko fondoak dituzten hartzaileei ezin zaie inola ere "frogatu beharreko" beste ordainketa agindurik luzatu
- c) Ordainketa agindu hauen hartzaileek jasotako kopuruak nola aplikatu dituzten frogatu beharko dute aurrekontua likidatu aurretik.
- d) Aplikagarriak diren muga kuantitatiboak eta aurrekontuetako kontzeptuak 21/2003 Foru Arauak arautzen ditu.

43.- NOIZ ITXIKO DA EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA?

- a) Ekitaldiko abenduaren 31n
- b) Hurrengo ekitaldiko abenduaren 31n, oraindik ere fakturak iristen dira-eta.
- c) Ekitaldiko azaroaren 30ean, aurrekontuaren exekuzio-oinarriek data hori adierazten baitute gastu-eskaerak egiteko azken data gisa.
- d) Hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n, aurrekontua likidatzen denean.

44.- NORK ONETSIKO DU AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA?

- a) Osoko Bilkurak
- b) Osoko Bilkurak, Alkatetzak proposatu ondoren
- c) Toki-erakundeko udalburuak, Kontuen batzorde bereziak proposatu ondoren.
- d) Toki erakundeko udalburuak, Kontu-hartzaileak txostena egin ondoren

45.- KONTU OROKORRA(K)

- a) Kontu Orokorra Udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.
- b) Jendaurrera azalduko da 30 egunetan; epealdi horretan interesdunek erreklamazioak, erreparatuak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte.
- c) Udalburuak gertututako Kontu Orokorra maiatzaren 30a baino lehen jarri behar da toki erakundeko Kontuen Batzorde Bereziaren onespenerako.
- d) Toki erakundearen urteko orri eta kontuen berri hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen emango du udalburuak.

46.- TOKI ERAKUNDEKO BURUAK:

- a) Udalbatzari ordu artean igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa bidaliko dio, hiru hilean behin.
- b) Udalbatzari ordu artean igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa bidaliko dio, urtero.

- c) Kontuen Auzitegiari ordu artean igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa bidaliko dio.
- d) Kontu Auzitegiari ordu artean igarotako epealdiari dagokion kontuen fiskalizazioari buruzko informazioa bidaliko dio.

47.- KONTABILITATE-EKITALDIA AMAITZEAN, ERREGULARIZATZE- ETA IXTE-ERAGIKETA HAUEK EGIN BEHARKO DIRA:

- a) Ekitaldiko emaitza erregularizatzea
- b) Ibilgetua erregularizatzea
- c) Kontabilitatea erregularizatzea
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

48.- TOKI ENTITATEEN AURREKONTUKO SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOAN BEREIZTEN DIRA:

- a) Eragiketa arruntak (1.tik 6.era bitarteko kapituluak)
- b) Kapital eragiketak (7. Kapitulua)
- c) Finantza eragiketak (8. eta 9. kapituluak)
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

49.- UDAL AURREKONTU BATEN SARREREN 2. ATALEAN , ZEHARKAKO ZERGAK DEITURIKOAN, HAUEK SARTZEN DIRA:

- a) 230. kontzeptua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga
- b) 213. kontzeptua. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga
- c) 282. kontzeptua. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

50.- PERTSONAL FUNTZIONARIOEN GASTUA KONTZEPTU HAUETAN EGOZTEN ZAIO GASTU-AURREKONTUARI:

- a) 120., 121. eta 160. kontzeptuetan
- b) 120. eta 160. kontzeptuetan

- c) 130. eta 160. kontzeptuetan
- d) 130., 131. eta 160. kontzeptuetan

ERRESERBA

51.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK ALKATEAK ETA ZINEGOTZI-KOPURU HONEK OSATZEN DUTE:

- a) Legezkoa den zinegotzi-kopuruaren herenak baino gutxiagok
- b) Legezkoa den zinegotzi-kopuruaren erdiak baino gutxiagok
- c) Legezkoa den zinegotzi-kopuruaren bi herenak baino gutxiagok
- d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena

52.- ALKATEAK ESKUMENA DU

- a) Bandoak emateko eta araudiak onartzeko
- b) Enplegu publikoaren eskaintza eta lanpostuen zerrenda onartzeko
- c) a) eta c) erantzunak zuzenak dira
- d) Erantzun horietako bat bera ere ez da zuzena

53.- NORK ORDEZKATZEN DU UDALA?

- a) Alkateak
- b) Osoko Bilkurak
- c) Tokiko Gobernu Batzarrak
- d) Alkateordeek, nork bere eskumen-eremuan

54.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO LEGEAREN 15. ARTIKULUAREN ARABERA, TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA KONTUAN HARTUKO DA BOTERE PUBLIKO GUZTIEN JARDUNEAN:

- a) Zeharkakotasun-izaerarekin.
- b) Modu orekatuan.
- c) Ahulezia berezia duten kolektiboen edo egitezko indarkeriaren kasuetan baino ez.
- d) Izaera ez-loteslearekin.

55.- EZIN DIRA INOLAZ ERE DELEGATU:

- a) Estatuko Burutzarekin, Nazioko Gobernuko Lehendakaritzarekin, Gorte Nagusiekin, autonomia-erkidegoetako Gobernu-Kontseiluetako Lehendakaritzekin eta Autonomia-Erkidegoetako Legebiltzarrekin izan beharreko harremanei buruzko eskumenak.
- b) Xedapen orokorrak emateko eskumena.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira
- d) Aurreko erantzun guztiak dira okerrak.

56.- BALANTZE BATERATUAREN BARRUAN, ZEIN EZ DA AKTIBO EZ-KORRRONTEEN PARTE?

- a) Ibilgetu materiala
- b) Lurzoru-ondare publikoa
- c) Epe motzeko zorrak
- d) Epe luzeko inbertsioa

57.- EKITALDIAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAK, BESTEAK BESTE, DOKUMENTAZIO HAU IZANGO DU:

- a) Itxitako aurrekontuen aldakuntzen orria; ekitaldian kobratzeko eskubideetan eta ordaintzeko betebeharretan izan direnak adierazi behar dira.
- b) Ekitaldiko diruzaintzaren kontua
- c) Sarrerak loturik dituzten gastuen finantzaketan izandako desbideraketen analisisa
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

58.- KREDITU-GERAKINEN INGURUKO ZEIN BAIEZTAPEN DA ZUZENA?

- a) Kreditu-gerakinek, aurrekontuko aplikazio bakoitzari dagokionez, jaso egiten dute obligazioaren onartze-fasera iritsi ez diren onartutako kredituen saldoa.
- b) Kreditu-gerakinen kasuan banakako jarraipen eta kontrola egingo da, hurrengo ekitaldiko aurrekontuko kredituetan txertatzeko aukerari begira

- c) Kreditu-gerakin horiek sailkapen hau izango dute: konprometituak eta konprometitu gabeak; eta haien barruan, berriz, hauek egongo dira: txertagarriak eta ezin txertatuzkoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

59.- TOKI ENTITATEKO ADMINISTRAZIOAREN EKITALDIAREN AURREKONTUETAN AURREKO EKITALDIKO ORDAINKETA-KREDITUAK SARTU AHAL IZANGO DIRA, BALDIN ETA AITORTUTAKO BEHARRAZ BETETZEARI ERATXEKI GABE BADAUDE, ETA HONAKO HAUETAKOREN BATI BADAGOZKIO:

- a) Kreditu gaituak eta ukitutako sarrerei lotutako beste kreditu batzuk
- b) Baimendutako transferentzia-xede izan diren kredituak, ekitaldiko azken hiru hilekoan emandakoak badira
- c) Kredituak kapital-eragiketengatik
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak

60.- AURREKONTUAREN LOTURA-MAILAK

- a) Urteko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak ezarriko ditu
- b) Programa taldea eta kapitulua, gastu arrunten ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboen aldaketen ziozko gastuetan
- c) Programa taldea eta kontzeptua, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza-gastuetan eta finantza pasiboen aldaketen ziozko gastuetan
- d) Artikulua, langileen gastuetan